



Ikasketa Plana

1041/2017 Errege Dekretuak, abenduaren 22koak, Egiaztapenaren ondoreetarako oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak finkatzen eta Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen araubide bereziko hizkuntza ikasketen B1 tartekoa, B2 tartekoa, C1 aurreratua eta C2 aurreratua mailen oinarrizko curriculuma eta zenbait ikasketa planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak ezartzen ditu.

Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-ikasketak ezartzen ditu, eta honako maila hauen arabera curriculuma biltzen du: oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasuna.

Goian aipatutako Errege Dekretuak Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak ezartzen dituen mailen izenak aldatu egiten ditu, eta orain arte Oinarrizko maila A2, tartekoa B1, aurreratua B2 eta gaitua C1 deitutakoak Errege Dekretu berriaren arabera A1 oinarrizkoa, A2 oinarrizkoa, B1 tartekoa, B2 tartekoa, C1 aurreratua izendatuko dira. Eta horiek EEM-ren A, B eta C mailei dagozkie, hurrenez hurren.

Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak helduentzat hizkuntzen irakaskuntza eskaintzen dute eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dauden zentro publikoak dira.

A2 Oinarrizko Maila, B1 Tarteko Maila, B2 Tarteko Maila eta C1 Goi Maila ematen dira, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan (HEEM) ezarritako mailen arabera.

Ikasketa motak

- **Ofiziala:** semipresentziala eta aurrez aurrekoa, ikaslea klaseetara joaten da eta ikasturteka azterketak egin ditzake dagozkion deialdietan.
- **Librea:** ikaslea ez da klaseetara joaten eta maila ezberdinetako ziurtapen frogetara soilik aurkezten da. Ez dago deialdi mugarik.

Ezin daiteke hizkuntza baterako aldi berean matrikula ofiziala eta librea izan, ikasturte batean.

Ziurtagiriak

Maila edo ziklo bakoitzaren bukaeran ezarritako frogak gainditzeak dagokion ziurtagiri akademikoa ematen du:

- **A2 Oinarrizko Mailako Ziurtagiria**
- **B1 Tarteko Mailako Ziurtagiria**
- **B2 Tarteko Mailako Ziurtagiria**
- **C1 Maila Aurreratuko Ziurtagiria**
- **C2 Maila Aurreratuko Ziurtagiria**

Ziurtagiri horiek ofizialak dira bai Autonomia Erkidegoan bai Estatu osoan.



967/1988 Errege Dekretuak, irailaren 2koak, arautzen dituen ikasgaiak	944/2003 Errege Dekretuak, uztailaren 18koak, arautzen dituen ikasgaiak	46/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, arautzen dituen ikasgaiak	Indarrean dagoen Errege Dekretuak arautzen dituen ikasgaiak (1041/2017 ED, abenduaren 22koa)
Oinarrizko zikloaren 1. kurtsoa	Oinarrizko Mailaren 1. kurtsoa	Oinarrizko Maila (A2)	Oinarrizko Maila
Oinarrizko zikloaren 2. kurtsoa	Oinarrizko Mailaren 2. kurtsoa		
–	Oinarrizko Mailaren ziurtagiria	Oinarrizko Mailaren ziurtagiria	A2 Oinarrizko Mailaren ziurtagiria
Oinarrizko zikloaren 3. kurtsoa	–	Tarteko Maila (B1)	B1 Tarteko Maila
Oinarrizko zikloaren Ziurtagiria	–	Tarteko Mailaren Ziurtagiria	B1 Tarteko Mailaren Ziurtagiria
Goi Mailaren 1. kurtsoa	–	Maila Aurreratua (B2)	B2 Tarteko Maila
Goi Mailaren 2. kurtsoa			
Gaitasun Ziurtagiria	–	Maila Aurreratuaren Ziurtagiria	B2 Tarteko Mailaren Ziurtagiria
–	–	C1 Maila	C1 Maila Aurreratua
–	–	C1 Mailaren Ziurtagiria	C1 Maila Aurreratuaren Ziurtagiria
–	–	C2 Maila	C2 Maila Aurreratua
–	–	C2 Mailaren Ziurtagiria	C2 Maila Aurreratuaren Ziurtagiria

*Hizkuntza guztietarako, Euskara izan ezik

Euskararen kasuan (64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa eta 48/2009 Dekretua, otsailaren 24koa):

5. maila edo Goi zikloa	Gaitasun maila	C1 Maila aurreratua
Gaitasun mailaren ziurtagiria	C1 gaitasun mailaren ziurtagiria	C1 Maila aurreratuaren ziurtagiria

MAILA ETA KURTSOA	NOR MATRIKULATU DAITEKE
Oinarrizko Maila A1	Hizkuntza horren ezagutzarik gabeko ikasleak eta A1 errepikatu behar dutenak.
Oinarrizko Maila A2	A1 gainditu dutenak eta A2 errepikatu behar dutenak.
Tarteko Maila B1.1	A2 gainditu dutenak eta B1.1 errepikatu behar dutenak.
Tarteko Maila B1.2	B1.1 gainditu dutenak eta B1.2 errepikatu behar dutenak.
Tarteko Maila B2	B1.2 gainditu dutenak eta B2 errepikatu behar dutenak.
Maila Aurreratua C1	B2 gainditu dutenak eta C1 errepikatu behar dutenak.
Lehenengoz matrikulatu nahi duen ikasleak ez dauka derrigorrez A1 mailan matrikulatu beharrik. Bere trebetasunari dagokion mailan matrikulatu daiteke maila-proba eginez.	